

JOAN ANAIA NEUTROI BONBAK HIL

Oraingoz USAK ez du neutroi bonbarik egingo. Hala erabaki du Carter Jn.ak. Baina oraingoz bakarrik, bitartean, bonba hori erabiltzeko behar diren tresnakegingo dituzte. Honela erdibidean (!?) geratu da Carter Lehendakaria: alde batetik, bonbaren kontrako mugimenduari amore eman dio; bestetik, gerrako armamentua egiten duten industriei ere amore eman die.

Berri horik irakurri ahal izan ditugu azken asteotan. Gaur, berriz, beste zerbait irakurri dut egunkarian: Bonba atomikoaren sortzaileetarikoa bat, George B. Kistiakowsky, neutroi bonbaren kontra agertu da. "Nere ilobak mundu zibilizatu batetan bizitzea nahi dut", esan du berak.

Bitartean, Joan anaia hil da, orain dela aste gutxi. Joan anaia monje ixila izan da aspaldiko urteotan. Baina horren izena oso ezaguna gertatu zen aspaldiko 1945 urte hartan. Berak bota zituen, bota ere, bonba atomikoak Hiroshima eta Nagasaki hirien gainean; bazterrak txikitu eta milaka asko hiritar garbitu zituen.

Joan anaia hil da; baina bazterrik ez da apurto, etxerik ez da jausi. Ia ia konturatu gabe hil da Joan anaia. Horrelaxe garbituko omen ditu herriak eta hiriak neutroi bonbak: etxeak bota gabe, fabrikak zutik utziz, baina inguruko gizakume, emakume eta bizidun guztiak garbituz. Neutroi bonbaren larria zabaldu da orain munduan, eta batez ere USAn; bonba "ixil" horrek arrapatu du nonbait Joan anaia, eta hil egin du.

Guzti honek bi gogoeta ekartzen ditu nere burura: biak garratzak.

ERRUGABEAREN DAMUA ETA ERRUDUNAREN MAMUA

Hiroshima gainean bonba atomikoa bota zuen pilotoak Jon Jevereux zuen izena. Gero, monje egin zenean, **Joan Anaia** deituta hartu zuen.

Pilotoak ez zekien zer zeraman abioi hartan. Besteren batek ondo zekien: Truman, USAko lehendakariak. Honen aginduak bete zituen harek.

Bere lotsa eta larria izkutatzeke eta bere damua eta mina agertzeko, monje egin zen pilotoa eta bere izena aldatu egin zuen. Truman Lehendakaria zen, munduaren aurrean, hilketa ikaragarri haren lehen eratzule; baina USAko lehendakari bezala irauten zuen, gerra irabaziaren harrotasuna agertuz. Ez zuen izenik aldatu, nahiz eta herrirentzat eta munduarentzat mamu izugarri bihurtua izan.

Joan Anaia "errukariaren" "damua" kantatu du hainbat sermolarik. Baina zeren damua? Zergatik errukaria?

Errespetagarria da, monje bezala bizitzeko hartu zuen erabakia. Begirune osoz begiratzekeoa da haren drama pertsonala. Baina, errurik ez zuela onhartzen bada, ez dago damuarentzako lekurik. Eta alferrik da haren dramaren teologia egitea. Bestela, sentimentalismo masokistaren babesle bihurtzen da Jainkoaren errukia.

Nere ustez, errukaria ez da Joan monjea; errukaria pilotoa da: militarismoaren makinan sartua dago; menpekotasun itsuaren izenean, bere erantzukizuna galdu beharrean da; eta ez jakinean ehundaka mila lagun hiltzera "behartua" dago.

Eta... monje "damutua" izan beharrean burrukalari zibil eta politiko bihurtu balitz? Izan ere erruduna beste nonbait dago: ehundaka mila lagun ezjakinean hiltzera inor "behartzen" duen sistema sozio-politikoak da gizartearentzako mamua.

Bere drama pertsonala garaitu ahal zuen Joan anaiak, eta sistema horren kontrako burruka ideologiko eta politikoari eskaini bere bizitza.

Baina mamu horren aurrean ixildu egin ohi da sermoilari gehiegi.

NEUTROI BONBAREN ZIBILIZAZIOA

Neutroi bonba da **gauzen** zibilizazioaren azken aurrerapena; horretxek ezereztuko du azkenik **gizonen** zibilizazioa.

Izan ere, oso bitxia da neutroi bonba! Gizonak hiltzen ditu, bizidunak garbitu; baina gauzak -"objektuak"- ez ditu ia ikutzen.

El hermano Juan, el antiguo piloto americano de las bombas atómicas sobre Hiroshima, que después se hizo monje, ha muerto precisamente en medio de las polémicas más vivas sobre la bomba de neutrón.

Su figura de monje arrepentido ha sido mitificado, cuando el crimen de Hiroshima y Nagasaki no pesan tanto sobre él, que también fue víctima del sistema militarista que lo llevó en su ignorancia a arrojar las bombas mortíferas.

La bomba de neutrón, por sus peculiares características de acción, lleva a reflexionar e ironizar amargamente sobre los beneficios que de ella va a reportar las multinacionales y las industrias armamentistas.

Honela, gauzen edo "objektuen" zibilizazioa aurrera eraman nahi dutenek bi helburu garrantzizko lortu dituzte:

1. Enpresa multinazionalak kezkatu ziren, munduko jendetza oso ugartuz doala ikusirik. Bildur ziren munduko gosetien erreboluzioa etorriko ote zen, ete beren negozioak ankaz gora bota. Orain ba dute soluzioa, malthusianismoari laguntza eskatu gabe. Han eta hemen neutroi bonba batzu bota; hiriak eta lurraldeak jendez garbitu; eta bertako beren industriak zutik eta lurraldeak libre geldituko zaizkie, beren negozioak indartzeko eta handitzeko.

2. Armamentuen industriak ere aurkitu du irtenbide garrantzizko bat, neutroi bonbak eginez. Errusiaren eta Estatu Batuen arteko armen dialektikak beste zelai zabal bat ireki du horrela. Eta zelai zabal horretan negozio-biderik izango dute armamentuen industrietan. Gauzen

Gauzen zibilizazioak salto bat gora egin du; **gizonenak**, bat behera.

Paulo Agirrebaltategi

